

{ datorrena } Iratxe Urizar

Uda garaian atsedenik ez

Bada hilabete nahikoa harrigarriak izan ziren adierazpen publikoak entzun genituela, zentzuzkoak izanik ere. Gasteizko lehendakariak aditzera eman zuen bere alderdi politikoak Madrilgo gobernu zentraletik kartzela eskuduntzaren transferentzia nahi duela. Antzeman zitekeen, gainera, presoek pairatzen duten eskubide urraketaekin arduratuta zegoela. *On line* egunkari formadun espainiar *mentideroetan*, hala ere, laster publikatu zen ahalmen eskaintza hori aurreko legealdian jada jarri ziola Rajoyk Urkulluri mahai gainean. Baina, orduan, hartzeari uko egin zion, gobernu zentrolean zein autonomikoan buru zein alderdi egongo zen jakin aurretik komeni ez zela argudiatuz.

Ez dut Gasteizko lehendakaria horrelakoak baieztatzen ikusten, baina ez litzateke lehenengo aldia modu horretan jokatzeko ikusten duguna: Publikoki jarrera bat; barne desioa, berriz, bestelakoa.

Beste behin ere, eta askotan bezala, hitzak baino ez. Nahiz eta kartzela politika ankerrak bere herritarren parte handi bati asko sufriarazi dion. Eta sufritzen jarraitzen dute.

Urkullu presoen eskubideen urraketari buruz ari denean ematen du urrutiko toki batetik inposatuta etorritako zerbaite dela; intentzio osoarekin ezkutatzeko du 1987an abiatutako estrategia anker horretan bere alderdiak oinarritzeko papera izan zuela. Urte horretatik aurrera eta astero-astero, aldaketa politikoekin edo gabe, garai gogorretan edo lasaigoetan, senideek bidaia berri batek suposatzen duen ziurgabetasunari aurre egin behar izan diote; arriskuak, triskantza ekonomikoa... Jada helduak diren dispartzioarekin hazitako haurrek milaka kilometro pilatu dituzte euren bizkar gainean, lagun, aitite, aita edo ama bisitatzen joateko. Uda sasoi honetan jada sei istripu larri izan dituzte bisitan zihoazen senideek. Errepidean gelditutakoak gogoan.

Baina beste behin ere, hiru probintzien ordezkariak presoen gaia berarekin ez doala erakutsi du. Joan den uztailaren 31n Loiolako Santutegiko atean zeuden presoen senideak, urtero bezala lehendakariaren zain.

Aurten “Dispartzioaren haurrak” txostena helarazi nahi zioten, salbuespen espetxe-politikak txikiengana zein ondorio dituen ikus zezan... Baina ez zen txostena jasotzera hurbildu ere egin. Ahaztu egin zuen, omen, berriro, bere alderdiak orain urte gehiegi adostu zuen akordio politiko anker horrek sortzen duen sufrimenduak ez duela atsedenik. Dirudienek, keinu horrek ez du tokirik hauteskundeetarako kalkulatzen.

Milaka bizipen mingarri. Gaixotasun larriak dituzten presoak (maiz osasun laguntzarik ezaren ondorio direnak). Giza eskubide oinarritzeko aldarrikatzeko senide presoek egindako gose greba mugagabeak. Arantza Zuluetaarena bezalako bakartze kasu beldurgarriak. Kartzelan egon gabe ere etxera bueltatu ezin direnak. Euskal Herritik urrun bizi behar dutenak eta zahartutako beren senideak –askotan, aita eta ama–

Objektiboki, berdin litzateke Urkulluk Etxeratek egindako urteko txostena hartzea ala ez, bertan jasotzen dena aldatzeko benetako prestasun eta konpromisoa existituko balitz

agurtu ezinik geratu direnak. Ez, opor garaian ere, atsedenik ez.

Baina –gutziz onartezina edo itsusia irudituta ere– objektiboki berdin litzateke Urkulluk Etxeratek egindako urteko txostena hartzea ala ez hartzea, bertan jasotzen dena aldatzeko benetako prestasun eta konpromisoa existituko balitz. Tamalez, ez da kasua, eta horregatik Loiolakoa bezalako keinua bidegabeko iraina bihurtzen da. Une horretan bertan, Plentzian, presoekiko elkartasun festa eta senideentzako omenaldi xumea den aurtengo lehenengo hondartzetako ekimena abiatu zen. Oporrik ez dagoela gogoan izateko, Euskal Herriko hondartzak atsedenerako toki izateaz gain, aldarrikapenerako beste toki bat direla adieraziz. Era-kundeak ordezkatzeko dituzten herritarren mailan ez daudela demostratuz. Beste behin ere. •